

**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO  
ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN 2022KO URRIAREN 4KO  
BILERAREN AKTA**

2022ko urriaren 4ko 13:00etan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseilua eratu da modu ez-presentzialean. Bestalde, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 17.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontseilu honen ondorioetarako, ulertzen da akta honetan jasotako erabakiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren egoitza nagusian hartu direla (Araba 45, Vitoria-Gasteiz), hura baita erakundearen egoitza.

Aurrekoa ezarri ondoren, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko presidentearen deialdia tarteko, honako hauek bildu dira: **Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea** andrea, Osasuneko sailburua eta Administrazio Kontseiluko presidentea; **José Luis Quintas Díez** jauna, Osasuneko sailburuordea eta presidenteordea, eta **Nerea Urien Azpitarte** andrea, Administrazio eta Finantzazio Sanitarioko sailburua eta kidea.

Ezin etorria adierazi dute Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jaunak, Aurrekontuen zuzendariak, eta Hernando Lacalle Edeso jaunak, Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordeak. Azken horrek bere botoa eta ordezkaritza eskuordetu dizkio Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea Osasuneko sailburu eta presidenteari (erantsita dago ordezkaritza emateko agiria).

Presidenteak quoruma dagoela egiaztatu du, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorriz. Horrenbestez, bertaratutakoek osoko bilkura eratu dute presidenteak antolatutako bilera egin eta bezperan jakinarazitako gai-zerrendako puntuak eztabaidatzeko.



Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutu Sozialen 8.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Administrazio Kontseilu honetara joan dira, presidentearen baimenarekin, Ente Publikoko zuzendari nagusi María Rosa Pérez Esquerdo andrea eta Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea, Susana López Altuna andrea (idazkari gisa).

### GAI-ZERRENDA

**BAKARRA.- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren ekainaren 10eko 484/2022 Ebazpenaren aurka Nuria Cuadra Escolar andreak jarritako gora jotzeko errekurtsoa partzialki baiesteko erabaki-proposamena aurkeztea, Administrazio Kontseiluak onar dezan. Hain zuzen, 484/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin zen Osakidetzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan Diplomadun Sanitarioak lanbide-taldeko Erizaina kategorian estatutupeko langile izateko hautaketa-probetarako onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda.**

Errekurtsogileak bi arrazoitan oinarritzen du bere erreklamazioa.

#### 1. ARRAZOIA

Nuria Cuadrado Escolar andreak garaiz eta behar bezala errekurritu zuen Osakidetzako zuzendari nagusiaren 300/2022 Ebazpena, Erizaina kategoriako onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzen zuena.

Behin-behineko zerrenda horretan, errekurtsogilea txanda irekian agertzen zen, desgaitasuna duten pertsonen kupoan, eta ukatu egin zitzaion berak eskatutako B aukera, 2016-17ko EPEko oposizio-fasean lortutako nota gordetzekoa; izan ere, B aukera hautatu eta oposizio-faseko nota gordetzeko, ezinbestekoa da txanda eta kupo berean parte hartzea EPEko bi prozesuetan.

Nota gordetzeko B aukera ukatzeko arrazoia 007 kodeduna izan zen. Kodeen glosarioaren arabera, "16-17ko EPEko txanda berean parte hartu ez zuen izangaia" esan nahi du horrek.

Behin betiko zerrenda onartzen duen 484/2022 Ebazpenean akatsa zuzenduta dago, eta txanda libre orokorrean onartutzat agertzen da, baina B aukera ukatzeko 007 arrazoiak zuzendu gabe jarraitzen du.

Aurrekari horiek ikusita, errekurtsoren arrazoi hori baiesten da; izan ere, txanda eta kupo berean parte hartu du, eta, gainera, Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2018. eta 2019. urteetako hautaketa-prozesuak arautu behar dituzten oinarri orokorren 12.6 oinarrian ezarritako baldintzak betetzen ditu. Horiek horrela, B aukera aitortzen zaio, eta ukatzeko 007 arrazoia ezabatzen da.

## 2. ARRAZOIA


Bigarren arrazoiari dagokionez, errekurtsogileak eskatu du 2016-2017ko EPEko nota gaitutuen behin-behineko zerrenda arautzen duen ebazpenean sartzeko, azken puntuazioaren arabera, oposizio-fasean eta lehiaketa-fasean lortutako puntuazioak bereizita.

- Ezin zaio eskaera horri erantzun, kasu honetan, berez, 484/2022 Ebazpena errekurritzen baita. Ebazpen horren bidez, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda baino ez da onartzen, eta, esan bezala, ebazpen horretan, errekurtsogileak onartutakoen zerrendan agertu behar du, berak hautatutako B aukerarekin.

- Ezin da onartu planteatutako erreklamazioa hautaketa-prozesuaren une honetan, prozesua onartutakoen eta baztertutakoen hasierako fasean baitago. Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi erreklamazioa ez denik prozesuaren geroagoko beste fase batean onartzeko modukoa, hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri orokorretan eta espezifiketan xedatutakoa kontuan hartuta.



Eztabaidagai gehiagorik egon ez denez, bilera amaitutzat ematen da, 2022ko urriaren 4ko 13:40ean.



**Sin.: Susana López Altuna**  
Idazkaria



**Sin.: Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea**  
Presidentea  
O.E.